



## Hizkuntza ohiturak astintzeko

'Ahobizi' edo 'belarriprest' gisa izena eman dezakete lasarte-oriatarrek; Euskaraldia azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da / 8-9

TXINTXARRI

## Ikasleen egunerokoaren ahotsa

Lasarte-Oriako adin ezberdinetako ikasleek koronabirusak nola eragin dien azaldu diote TXINTXARRI-ri / 6-7

'Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak' dinamika abian jarri dute eskualdeko zenbait artegilek / 2

**Herritarrek proposatutako proiektuak egitera 500.000€ bideratuko ditu udalak / 3**

**'Bizi dantza' ikuskizunak ireki du udalak urrirako prestatu duen kultur agenda / 4**

**Behemendik egindako ibilaldian herriko eraikin eta muralen historia ezagutu dute partaideek / 5**

**Real Sociedad taldeko Iraia Iparragirrekin solastu gara denboraldi-aurreari eta ligari buruz / 10**

**Ostadar Saskibaloiko senior taldeak garaipena lortuz eman dio hasiera denboraldiari / 11**

solaskide  
**ELKARREKIN**  
euskara bizi, erabili

IZEN EMATEA  
URRIAREN 30ERA BITARTE

solaskide  
**Astindu mingaina!**

IZEN EMATEA: URRIAREN 30ERA BITARTE

Ttakun Kultur Elkarte | LASARTE-ORIA  
kultura@ttakun.eus 943 37 14 48 • 695 785 389

Antolatzaileak: Ttakun, Euskararen Topagunea, muntteri, LASARTE-ORIA, Babeslea

berria!

Harategia Urdaitegia  
**jaizkibel**  
Carnicería Charcutería

**HARATEGIA | URDAITEGIA | ERAMATEKO JANARIA | ONTZIRATUAK | EDARIAK | BARAZKIAK | FRUTA**

**Jaizkibel plaza, 11 Lasarte-Oria • Tel: 843 67 40 71**



# Kultur sortzaile gazteen sarea ehuntzeko deia

'Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak' dinamika martxan jarri dute eskualdeko zenbait artegilek, "inoiz baino garrantzitsuagoa" iruditzen zaielako "elkar ezagutzea, sareak eraikitzea eta proiektu amankomunak sortzea". Urriaren 16an aurkezpen presentziala egingo dute herrian

## Txintxarri

Saretzea, elkar babestea eta dinamika amankomunak eratzea. Eskualdeko zenbait gazte elkartu egin dira eta *Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak* dinamika sortu dute. "COVID-19aren ondorioz bizitako berrogeialdiak eta jarraian etorritako 'Normaltasun berrian' bizitzen ari diren egoera ziurgabeak mugitu gaitu", azaldu dute eskualdeko hedabideetara igorritako prentsa oharrean.

Salatu dute sistemak "aisialdi eta kontsumo produktu soil" bilakatu nahi duela kultura, eta, horren aurrean, "inoiz baino garrantzitsuagoa" dela kulturagile, sortzaile, artista eta kultur arloko langileak elkar saretzea eta euren nortasuna indartuko duen elkarguneak sortzea, euren eskubideak aldarrikatzearekin batera. "Isolamenduak argi utzi zuen artea eta kultura lehenetsuneko alderdiak direla gure bizitzetan, sorkuntza, argi-



Buruntzaldeko gazte sortzaileek bat egin zuten apirilako kultur grebarekin. B.G.S.

izpi bilakatu zen bakardadez jositako zingira ilunean".

Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak diote artea dela "norbanakoak eta gizarteak astintzeko eta eraldatzeko gaitasuna duen motore iraultzailea". Horren

aurrean, beraien iritziz ez da kasualitate agintariak hartutako jarrera: "Itotzear den euskal kultur munduarekiko aitortza egin eta irtenbideak proposatu beharrean, berriz ere baztertuta utzi gaituzte".

Egoera horren aurrean erabaki dute artegileek *Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak* dinamika martxan jartzea, arestian esan bezala, sareak eraiki, elkar babestu eta dinamika amankomunak eratzeko xedez.

## Hiru helburu nagusi

Dinamika abian jartzearekin batera lortu nahi dituzten helburuak finkatu dituzte eskualdeko sortzaile gazteek: elkar ezagutu eta saretzea; euskal kulturagileak "kolektiboki kolpatzen dituen problematikari" modu bateratuan aurre egitea; eta inguratzen duen munduarekiko "kritikoa eta konprometitua" den kulturagilearen figura aldarrikatzea.

Helburuetako bat, esan bezala, da eskualdeko sortzaile gazteek elkar ezagutu eta saretzea. Horretarako, plataforma digital bat diseinatu dute: *Buruntzaldeko Gazte Sortzaileen Plaza*. Nahi dute izatea artegileen topagune eta elkar harremantze tresna bat. Plataforma horretan jasoko dituzte sortzaileen profilak, kultur ekimenen agenda, *Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak* dinamikari buruzko azalpenak, proiektu eta artista berriak iragartzeko taulak, eta abar. Izena eman nahi dutenek plataforma digitalean bertan egin dezakete, ondoko helbide honetan: <https://buruntzasortzailea.wixsite.com/buruntzasortzaile>.

"Euskal kultura pairatzen ari den bazterkeria salatu nahi dugu; horri arnasmuneak eskaintzeko

ekimenak eta aldarrikapenak gauzatzea dagokigu", adierazi dute sortzaileek oharrean. Hori gauzatzeko, eskualdeko herriak zipriritinduko dituen artegintza dinamika eta gogoeta proiektuak gauzatu nahi dituzte.

Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak dinamikaren aurkezpen presentzialak egiteko asmoa daukate artegileek. Lasarte-Orian, esate baterako, urriaren 16an egingo dute saioa, ostiralarekin, 18:00etan. Tokia zehazteko dago oraindik. Egun bat lehenago, 15ean, Hernanira joango dira, eta Usurbilera 22an. Arratsaldeko seietan hasiko dira saio horiek ere.

## Itxialdian, greba

Koronabirusari aurre egiteko neurriek eragin zuzena izan dute kulturagintzan hilabete hauetan. Kezka nagusi da sortzaile eta eragile askorengan. Euren aldarrikapenak ikustarazteko, greba digitala egin zuten apirilaren 21ean eta 22an; ez zuten kultur edukirik argitaratu Interneten. Deialdi horrekin bat egin zuten Buruntzaldeko gazte sortzaileek ere, "modu kolektiboan eragiten ari den gaitzari aurre egiteko".

## 'BURUNTZALDEKO GAZTE SORTZAILEEN PLAZA' IZENENKO PLATAFORMA DIGITALA SORTU DUTE



ARGAZKIAK: TXEMA VALLES

## Sute eta auto istripu bana asteen

Astelehen goizaldean su hartu zuen Adarra kaleko 8. zenbakiko etxebizitza batek. Udaltzainak bertara iritsi zirenean konortetik gabe topatu zuten jabea. Gurutzetako ospitalean ingresatuta dago "erredura larriekin". Sutea zerk sortu zuen ikertzen ari dira.

Astearte arratsaldean furgoneta batek talka egin zuen kamioi batekin N-1 errepidean, Madrilerako noranzkoan, Lasarte-Oria parean. Furgonetaren gidaria ospitaleratu egin dute; larri dago. Errei bat bi orduz itxita eduki zuten ibilgailuak erretiratu eta errepidea garbitu bitartean.



SASOETA SASOIAN

## Bandera berria eta oroigarria

Sasoetak ez ditu auzoko festak ospatu aurrean, baina egin du ekitaldi sinboliko bat asteburuan zehar. Sasoeta Sasoiarekin jakinarazi du auzo elkarteak bandera berria daukala, hori eta urdin kolorekoa nagusiki. Horrez gain, oroigarri bat jaso du Marimar Palaciosek, hunkituta. Senarra zendu egin da aurrean; auzoko danborradako antolatzaileetako bat zen.



# Herritarren egitasmoei tokia aurrekontuetan

Lasarte-oriatarrek urriaren 12tik 26ra arte aurkez ditzakete proposamenak. Hauek dira baldintzetako batzuk: kostu totala gehienez 500.000 eurokoa izatea, herriari zuzenduta egotea eta 2021ean egiteko modukoa izatea. Bigarren fasea urriaren 27an hasiko da

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak 500.000 euroko partida bat sartuko du aurrekontuetan, parte-hartze bidez jasotako proiektuak egiteko. Egitasmoak aurkeztu ahalko dituzte lasarte-oriatarrek urriaren 12tik 26ra, udal erregistroan edo [participacion@lasarte-oria.eus](mailto:participacion@lasarte-oria.eus) helbidera bidalita, Partehartze zinegotzi Nagore Duranek azaldu duenez. Azpimarratu du bosgarren urtez gauzatuko dutela egitasmoa; parte hartzera animatu ditu herritar guztiak. "Ea iazko partehartze kopurua edo are hobea lortzen dugun".

Proiektuek baldintza batzuk bete beharko dituzte: herriari zuzenduta egotea; udalaren eskumenekoa izatea; 2021ean gauzatzeko modukoa izatea; "zehatza, xehea eta ekonomikoki ebaluagarria" izatea eta gehienez 500.000 euroko kostua izatea; ingurumenean "inpaktu positiboa" izatea edo behintzat negatiboa ez; eta genero, arraza, adin eta abarretan diskriminatzailea ez izatea. Duranek zehaztu du ez zaiela laguntzarik emango udaletik diru laguntzak jasotzen dituzten entitateei.

Herritarrek memoria bat aurkeztu beharko dute proposamenekin batera. Txosten



Partehartze batzordeburu Nagore Duranek eman du egitasmoaren berri. TXINTXARRI

horrek jaso beharko du egitasmoaren izenburua, nor aurkeztu duen eta berarekin harremanetan jartzeko bidea, deskribapena, pertsona onuradunak nortzuk liratekeen, eta gutxi gorabeherako aurrekontua, besteak beste.

## Bigarren fasea

Urriaren 27tik azaroaren 6ra jasotako proposamenak baloratuko ditu Balioespen eta Esleipen batzordeak. Hori osatuko dute Ogasun batzordeko kideek eta udaleko teknikari batzuek: kontuhartzaileak, idazkariak, Hirigintza saileko teknikariak eta herritarren Partehartze saileko teknikariak.

Onartutako proposamen guztiak batuta, kostua 500.000 eurokoa baino txikiagoa bada, guztiak gauzatuko dira. Handiagoa izanez gero, beste fase bat abiatuko dute: herri-kontsultarena. Lasarte-oriatarrek udal eraikinetan kokatuta dauden postontzietan utzi beharko dituzte iritzia, edo udalaren webgunean, *Herritarren partehartzea* atalean. Babesik handiena jasotzen duen egitasmoak 50 puntu eskuratuko ditu; besteak proportzionalki puntuatuko dituzte, botoen ehunekoen arabera. Balorazio eta Esleipen batzordeak puntuazio-zerrendak argitaratuko ditu, proiektuak handienetik txikienera ordenatuz.



NEURE KABUZ  
GORKA LASA

## Aterik jo gabe

Euria ari du, etengabe, atertu gabe. Inguruko mendi, haran eta bailarak lehor daude, egarriz, aspaldian ez baitu tantarik ere bota, eta ur falta handia somatzen da: belardiak ez dira berdetzen, behi gorriak larrean dabilzala ia ez da antzeman ere egiten, eta hauek edaten duten aska inguruan ez dago zapaburu putzurik.

Aurten, basurdeak ere lehorretik dabilza; sakon-zuloetako zingira lohi eta lokatzetan aztarka ibiltzeko aukerarik gabe.

Onddo sasoa ere badugu uda hondarra; ez da uzta oparorik, orde. Bakarren bat edo beste ausartzen da zoru idorra estaltzen duen orbel artetik txapela kanporatzen, baina ezer gutxi. Masustak daude larrari itsatsiak beltz eta mardul, gozoan gozo. Baina orain euria ari du, erruz, aspaldiko partez.

Faltan sentitzen nuen euria. Leiho ondoan eseri eta euria nola egiten duen ikusi, zar-zar lurraren kontra erortzen entzun, euri ondorengo usaina, freskoa, bustia, hezea, lizuna,... eta nola ez, euri tantak ukitu; eskua leihotik kanpora atera eta blai egin, busti-busti egin hatzak zimurtu arte... euri-mina nuela esango nuke.

Baina eskua eurlan nuela, ustekabea, izugarritzko hotzikara jabetu da nire gorputzaz eta dardarka batean hasi naiz hortzak ere dantzan jarriaz. Aulkitik altxa eta hotzetik babestuko nauen zerbaiten bila joan naiz hortzak akabatu aurretik. Sofa ondoan, han aurkitu dut amak oparitutako koadrodun manta, manta gorri-berdea, goxo-goxoa. Eta hauxe soinean hartu eta berriz eseri naiz leiho aurrean, euria nola egiten duen ikustera.

Sukaldeko ateari zirrikitu estu bat ireki zaio bapatean, non katu nabarrak burua lehenik eta isats tenea azkenik gorputz osoa pasa duen leunki igurtziz. Hau ere sukaldeko epelera hurbildu da hotzetik ihesi. Argi dago ate joka genuen udazkena baino negua sartu zaigula aterik jo gabe, katua bezala.

## Urriko lehen zazpi egunetan 39 positibo atzeman dituzte

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera, Lasarte-Orian 39 kutsatzeren berri eman dituzte urriko aurreneko zazpi egunetan. Urriaren 7ko datuak izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu dituen azkenak edizioa itxi aurretik. Horien arabera,

asteazkenean bi kasu detektatu dituzte herrian, bezperan baino zortzi gutxiago.

EAE erkidegoko hiru lurraldeetan 454 kasu detektatu dituzte urriaren 7an, horietatik hamabi Beterri-Buruntza eskualdeko udalerrietan. Lasarte-Oriako bi kasuez gain, lau atzeman dituzte Hernanin, bina Andoainen eta Astigarragan eta bana Usurbilen eta Urnietan.



# Plaza Dantza Saioak antolatzeneko bilera

**Eguna:** Asteartea urriak 13 • 20:00etan.

**Tokia:** Sasoeta-Zumaburu ikastetxea (Sasoeta eraikineko gimnasioan)

**Informazioa:** Ttakunen bulegoan • [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus)  
943 37 14 48 • 695 785 389



# Egun iluna pozez eta kolorez betetzen

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek ireki dute urriko kultur agenda herrian, 'Bizi dantza' ikuskizuna taularatu. Koronabirusagatik hartu beharreko neurriak neurri, ikus-entzule gaztetxo zein helduek gogotik gozatu dute emanaldiaz kultur etxean

## Txintxarri

Koronabirusak eragindako egoera dela eta, segurtasun neurriak ezarri dituzte kultur etxera sartzeko. Horrek ohi baino ilara luzexegoa sortzea ekarri du. Aurpegi margotuak, ileordeak... Agertokian nor ikusiko zuten asmatzen laguntzen zuten zenbait zantzuk ikus zitezkeen sartzeko zain zeudenen artean. Zoruan jarritako markek tartea eta norabidea zehazten zuten, gogoak bultzatuta kosta egin bada ere lagunengandik bereiztea.

Sarrera eskuan zekarten helduek atezainari erakutsi bitartean txikienei eskuak

garbitzeko gela eman die beste arduradun batek. Gehienek bazekiten, baina batzuei nola igurtzi esan behar izan diete. Barrura pasata, zegokien solairuan eserlekua bilatu dute. Edukiera murriztua agerikoa zen, eserleku artean hutsik zeuden aulkiak ikusita. Urduritasuna gero eta agerikoagoa zen txiki batzuegan, baina pixka bat gehiago itxaron behar izan dute. Izan ere, argiak itzuli aurretik, segurtasun jarraibide batzuk eman baitzikiere. Porrotxen ahotsean entzun dute musukoa ahoa eta sudurra estalita jarrita eduki behar dutela, bakoitzak bere eserlekuan eserita egon

behar duela, "aulkien jolasera etxean jolastuko zarete", eta amaieran nondik irten beharko duten. "Ondo pasa!" oihuarekin batera hasi da emanaldia.

Fabuletan bezala, animalia bilakatu dira hiru pailazoak oraingoan: Porrotx oilarra da, Pirritx, astoa, eta Marimotots katua. Ez dira ikuskizuneko animalia bakarrak, ordea. Besteak beste, asto zurruteroa, plastiko artean arrantzatutako marmoka edo Zubietako behi aldarrikatzailea ere agertokian izan dira dantzan; eta hainbat gaitaz aritzeko hizpide izan dira: feminismoa, ekologia, aniztasuna.... Hori dena, kanta eta umorez jantzita.



Ikuskizunaz gozatzera sartu aurretik, protokoloa bete zuten langilek eta ikusleek. TXINTXARRI



Dena eman dute kultur etxeko oholta gainean hiru pailazoek eta lagunek. TXINTXARRI



ISAAC FARRE RICO

## Berriz ere protestan

Atsotakar egoitzako zenbait langilek protesta egin dute erresidentziaren atarian ordu erdi inguruz, "kalitatezko zerbitzua" eskatzeko. ELA, UGT eta CCOO sindikatuek deitu dute protesta ekitaldia. Pasa den asteke asteazkenean ere lau haizetara zabaldu zituzten euren aldarriak, adieraziz Domusvi enpresa egoitza kudeatzen hasi zenetik "asko" jaitsi zela zerbitzuaren kalitatea. COVID-19ak eragindako egoerak langileei eragin diela zehaztu dute: "Lan-karga asko handitu da; ahituta gaude".

Lan hitzarmenean sinatutakoa betetzen ari ez dela egotzi diote langileek Domusviri. Azaldu dute aldi baterako kontratua daukan behargin batek lehenetsuna daukala ordezkapenak egiterako orduan, lanaldiaren %100era iritsi arte. "Hori egin beharrean, zentroa eta egoiliarrak ezagutzen ez dituzten pertsonak kontratatzen ditu Domusvik behin-behinean". Enpresa horren kudeaketak "ezinegona" sortu du langileengan, eurek lortutako "zenbait hobekuntza" indargabetu dituelako.

## Semblante Andaluzek ez du Aste Kulturala ospatuko aurten

Flamenkoak, musika eta dantza emanaldiek, jatekoak, edatekoak eta andaluziar bandera txuri-berdeek ez dute Okendo plaza hartuko aurtengo urrian. Aste Kulturala ez egitea erabaki du Semblante Andaluz elkarteak; sare sozialetan eman du horren berri, "pena handiz", hartu beharreko protokolo-neurriekin ezin dietelako aurre egin beraien gizabaliabide eta materialarekin.

Semblante Andaluzek gogoratu du Atsotakar etorbideko egoitzak itxita jarraitzen duela. Hala ere, salgai jarri du elkarteak Gabonetako loteria Izaguerri administrazioan 35.344 zenbakidun dezimoak eros daiteke.



TXINTXARRI

## Aurtengo Euskal Jaia, sinbolikoa

Bilerak egin eta hausnarketa egin ostean, Euskal Jaia sinbolikoki ospatzea erabaki dute ekitaldia antolatzen duten eragileek. Egitaraurik prestatuko ez badute ere, egun horretan herrian sortu ohi den giroa mantentze aldera, urriaren 17an, larunbatez, kalera baserriarrez jantzita ateratzera animatzen dituzte lasarte-oriatarak. Etxeko leiho eta balkoiak eta komertzioetako leihoak atontzeko deia ere egin dute.

Asteazken arratsaldean elkartu dira Plaza Dantza egitasmoko kide Javier Fernandez de Lezea, Ttiriki Ttarraka musika eskolako irakasle Lierni Arozena, Ttakun Kultur Elkarte Kultura saileko arduradun Xabier Matxain, Munterri-AEK euskaltegiko kide Garazi Zinkunegi eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako kide Erik Arzallus. Baserriarrez jantzita azaldu dira hitzordura, dotore-dotore, eta COVID-19a dela eta gaur gaurkoz jantzea derrigorrezkoa den maskara soinean. Urriaren 17an herriarrek ere horrela jantzea espero dute.





Behemendik estreinakoz egin du jarduera, baina datorren urtean errepikatzeke asmoa du. TXINTXARRI

# Pausoz pauso, herriko ondarean sakontzen

Behemendi Elkarte Beterr-Buruntza eskualdeko herriak hobe ezagutzeko bisitaldi gidatuak egiten ari da asteotan. Igandean Lasarte-Oriaren txanda izan zen, eta partaideek bertako eraikinek nahiz muralak gordetzen duten historiaren berri izan zuten

## Maitane Aldanondo

Bederatzi lagunek izena emana zuten eta inork ez zuen hutsik egin. Okendo plazako arkupeetan batu ziren denak, euriak zalantza piztu ziela aitortu arren. Lasarte-oriatarrek edo herriarekin lotura zutenak ziren denak, bertako eraikin edo txokoei buruz gehiago jakiteko gogoz. Ordu eta erdiko ibilbidean aterkia irekitzeko beharra izan bazuten ere, euriak ez zuen jarduera zapuztu.

Erdigune, topaleku eta hamaika ekimenen kokagunean eman zituen lehen azalpenak Ainhoa Aiertza Behemendi Elkarteko kideak. Euskaraz aritu zen andoian darra, udaleko webgunetik edota Kutxa Fototekatik hartutakoak azaltzen. Udaletxe berriaren eraikina, lurren jabetza, erabilerak... aipatuta, apaiztxera jo zuten. Han, irudi zaharrak erakutsiz, bertan saltokia izan zela gogorarazi zuen, baita hurrek dendariari kantatu ohi zioten abestiaren hitz batzuk ere.

Pixka bat aurrerago egin, eta San Pedro elizaz nahiz udaletxe zaharraren eraikinaren historiak

mintzatu zen, baina partaideetako batzuen eztabaida gailendu zitzaion gidaren ahotsari. Ez ziren ados jarri guardia zibilak bertan egondako denborari zegokionean, baina nabarduera horiekin bere hitzak aberastu zituztela esan zien Aiertzak. Handik, Ama Brigitarren komentura joan ziren. Armarría, herriko mugak... hizpide izan zituzten berriro partaideek.

## Muralez mural

Geldialdi horretatik aurrera, horma irudiak izan ziren bidea zehaztu zutenak. Beko Errotako *Lasarte-Oria Multikulturala*; Goikaleko *Wild* eta Kale Nagusiko *Begirunez Beteriko Begiradak* ikusi ondoren, Zumaburuko Arantzazuko Ama elizaraino joan ziren. Aurrez aurre duen muralaz gain, eliza berezia barrutik ezagutzeko ere aprobetxatu zuten batzuek. Bitartean, hura eraikitzeke lurrak eman zituen Liberto Aizpuruari buruzko ezagutzak trukatu zituzten, bakoitzak bere bizipenetatik edo kontatuta dakiena gehituta.

Plazaolako trena kuttuna da lasarteoriatar askorentzat eta garrantzia berezia izan zuen bere garaian, Gipuzkoa eta Iruñea lotzen baitzituen. Kontatu beharrekoak entzunda, muralak erakusten duenaren atzean zer dagoen azaldu zion emakume batek gainerakoei. "Hor, Juanito, el herrero zegoen. Arteagatarren etxea, eta Mirentxueneko porteria. Hor jolasten ginen gu...". Herriaren eraldaketa bizi eta bere begiekin ikusi duen seinale. Hain justu, tunela zeharkatuta, haren haurtzaroko jolastokira bidea egin zuten. Mirentxu Enearen berezitasunez mintzatu zen gida, baita Ignacio Zuloaga artistak hura eredu hartuta, Zumaian egin zuen etxearen argazkia erakutsi ere. Aldapan behera jo eta Euskotren aurrean egin zuten azken geldialdia.

Behemendi Elkarte Buruntza-Beterr eskualdeko herri guztietan egiten ari dira asteotan bisitaldiak. Larunbatean Urnietan izango dira, eta astelehenean, Hernanin. Herrira, berriz, datorren urtean bueltatuko dira.



Sareen deia erantzunez, Okendo plazan elkartu dira dozenaka herritar. TXINTXARRI

## Mendietara eraman behar zituzten aldarriak, plazetan

Sarek 2021eko maiatzera atzeratu du 650 tontor ekimena; horren ordez, argazki jendetsuak atera dituzte herriz herri

### Txintxarri

Ziklogenesi leherkorra iragarri eta lehen zantzuak nabaritzearekin batera, Sarek astebururako zuen asmoa aldatzea erabaki zuen. Mendira igoera modu seguruan egiteko aukerarik izango ez zutela ikusita, maiatzaren 8ra atzeratu dute ekintza. Horren ordez, herriko plazetan argazkiak egin dituzte, baita Okendon ere.

Hitzordu horren aurretik Donostiako Ibaetako frontoian izan da Joxe Mari Agirretxe. Berak hartu du hitza Izan Bidea dinamikaren inguruko zenbait azalpen emateko. Mugimenduaren bozeramaileek adierazi dutenez, presoen inguruan ematen ari

diren pausak "eskasak" dira, eta "haserrea" adierazi dute. "Salbuespen legedia" bertan behera uzteko eskatu dute.

Horren aurrean aktibazioa behar dela uste dute, hilabeteotan egindako lan "emankorrean" sakontzea. Lasarte-Oriari dagokionean, taldea "sendotu eta handitu" egin dela nabarmendu du eta gazteak egiten ari diren lana bereziki eskertu. Urriaren 24an manifestaziora deitu du Sarek, Donostian, "Irtenebidea-Resolucixn" leloarekin. 17:00etan abiatuko da Antiguako tuneletik. Bertan parte hartzera animatu ditu bertaratutakoak Ixiar Arteagak.



ISAAC FARRE RICO

## Udalerría eta Oria ibaia

Herritar talde batek HAPO plana idazteko prozesuaren baitan antolatutako ibilaldian parte hartu du asteazken arratsaldean: hausnartu dute udalerríak eta Oria ibaiak duten harremanari buruz. Urriaren 22an egingo dute hurrengo saio presentziala, ostegunarekin, kultur etxeko hitzaldi aretoan, 18:00etatik aurrera. Aurrez izena eman behar da udalaren web orrialdean.



# Egokitu, egokitzen dira,

Behin eta berriz esan eta entzun ohi dugu etxeko gazteenak erraz moldatzen direla edozein egoera berrira. Hala izan ohi da; moldatu moldatzen baitira, noski, baina egoera berri horiek ere sentimendu ezberdinak sorrarazten dizkie gazteei. Ikasturtea hasi eta hilabete igaro den honetan, herriko adin ezberdinetako zenbait ikaslerekin bildu da TXINTXARRI, koronabirusak eragindako egoera nola bizitzen ari diren biltzeko.

Maddi Zaldua

## "Jolasgaraian ezin dugu beste gelako lagunekin jolastu"

Koronabirusa iritsi aurreko ikastolako egunerokoa eta gaur-gaurkoa "ezberdina" ikusten dute Unai Berasategik, Amets Vilak eta Markel Perezek. Landaberri-Garaikoetxeako ikasleak dira hiru lagunak, eta eskolako egunerokoa zertan den ezberdina kontatu diote TXINTXARRI-ri: "Orain, egunero-egunero maskarak jantzita egon behar dugu ikastolan, gel hidroalkolikoarekin garbitu behar ditugu eskuak eta beti distantziak mantendu behar ditugu". Egoera berriarekin ez daude gustura: "Dena asko aldatu da".

Maskarekin "deseroso" sentitzen direla ere nabarmendu dute: "Estutasuna sortzen du; ura edateko eta hamaiketako jateko bakarrik kendu dezakegu". Markel Perezek gehitu du bero asko sorrarazten diola, eta aho ingurua beti "urez beteta" izaten duela.

Bakoitzak bere ur-botila eramaten du eskolara; hain zuzen ere komunerako joan-etorriak, eta batez ere horietan gerta daitezkeen ikasle pilaketak ekidin eta iturriak ikasle askok erabiltzea saihesteko. Hain zuzen ere, komunen erabileran ere aldaketak izan dituzte; hiru lasarte-oriatar gaztetxoek azaldu dute

komunera joateko tarte zehatzak izaten dituztela.

Irakasleek, segurtasun distantziak mantenduz gelan hitz egin eta azalpenak emateko maskara kentzea lagungarria dela uste dute hiru gaztetxoek: "Bestela ezin dugu hitz egiten dutena ulertu". Segurtasun neurriekin ez dira "eroso" sentitzen: "Ezin dugu lehen bezainbeste elkartu lagunekin jolasteko, eta maskara jantzita ezin daiteke ondo arnasa hartu".

Unai, Markel eta Amets lagunak dira eta sumatzen dute, adibidez, jolasgaraian elkarrekin jolastu ahal izateko beharra. Baina, ezin dute gaur gaurkoz: "Amets beste gelakoa da, eta hortaz, jolasgaraian ezin dugu elkarrekin jolastu; gela bakoitzak jolasteko gure eremua dugu eta ezin dugu hortik kanpo ibili", azaldu du Unai Berasategik. "Nahaiago dugu denok elkarrekin, nahastuta jolastu".

### Konfinamendu garaia ere gogoan

Etxetik atera ezinik igarotako konfinamendu hilabeteak "aspertuta" igaro zituztela azpimarratu dute gaztetxoek. Jolasteko tarteak



Markel Perez, Unai Berasategi eta Amets Vila, hurrenez hurren, Txintxarriekin hizketan. TXINTXARRI

izan zituzten, baina eskolako lanekin ere jarraitu zutela azaldu dute. Baina, hirurak bat datoz hausnarketa berarekin; nahiago dute eskolak etxetik jarraitu baino, gelara joatea: "Eskolan lagunekin egon gaitzeko, nahiz eta orain, beste modu batean, distantziak mantenduz egon behar dugun lagunekin, eta ikasi ere, gehiago ikasten dugu eskolara joanda".

Koronabirusak eragindako egoera "oso arraroa" da hirukote lasarte-oriatarrentzat: "Jende asko ari da hiltzen birusagatik; guk lagun bat izan dugu koronabirusarekin, eta ondo dago orain, eskerrak! Birusak txikiok ez digu ezer egiten, baina, halere, segurtasun neurri guztiak errespetatu behar ditugu badazpada, eta horrelaxe egiten dugu guk".



Irati Caro Dominguez, etxetik ikasten. C. DOMINGUEZ

LH5

## "Ohitzen ari naiz, baina arraroa da egunerokoa"

Hamar urte ditu Irati Caro Dominguez Sasoeta-Zumaburuko ikasleak, eta oso modu atseginean erantzun dio TXINTXARRI aldizkariaren deia: bideo-dei batean elkartu dira Caro-Dominguez familia eta aldizkariko kazetaria. Ikasturte berria nola bizitzen ari den galdetuta, dena "nahiko arraroa" egiten ari zaiola azaldu du, baina "ohitzen" ari dela.

Marxotik irailera ikastetxetik kanpo aritu behar izan zuen gainerako ikaskide guztiak bezala, eta hori "gogorra" egin zaió: "Nahiago dut eskolak ikastetxean, aurrez aurre jaso eta ikaskideekin egon; hori asko bota dut faltan konfinamendu garaian".

Ikasturte berrian eskolara bueltatu dira, eta bertan aurkitu duten egunerokoaren

berri eman dio gazteak aldizkariari. Azaldu du "oso deserosoa" zaiola momenturo maskarak jantzita egotea: "Ez ditut ikaskideen aurpegiak ikusten eta niri, euren aurpegiak ikustea gustatzen zait". Ikastetxera sartzeko jarraitu beharrezko protokoloa oso barneratuta du: "Mailaka eta ordu zehatzetan antolatuta sartzen gara ikastetxera; gel hidroalkolikoarekin eskuak garbitu eta orduan sartzen gara gelatara. Bertako leiho eta ateak ere momenturo zabalik daude, gelak uneoro aireztatuta egon daitezten".

Ikastetxeko komunerako joan etorriak ere ez dira orain artekoak bezalakoak: "Egoera guzti hau sortu aurretik nahi genuenean joan gintezken komunera, orain, berriz, hamar minutuko tarteak ditugu komunera joateko". Jolastokiko ohiturak ere ezberdinak orain:


"Gela barruan, bakoitza bere mahaian eserita jaten dugu hamaiketako, eta ondoren irteten gara jolastokira, mailaka".

### Ikasketa prozesua etxetik jarraitzen

Orain, hamar bat egun daramatza etxean Iratik. Gertuko batek positibo eman eta berrogeialdiko egunak igarotzen ari da. Etxetik ari da eskolako egunerokoa jarraitzen, eta aitortu du "zailagoa" dela horrela lan egitea: "Irakasleak egunero egin behar ditudan lanen berri ematen dit eta egunero deitzen dit zer moduz moldatzen ari naizen galdetu eta zalantzak argitzeko. Egindako lan horiek etxetik irten ezin daitezkeenez, argazkiak bidaltzen dizkiot irakasleari, eta horien bidez egiten dute beraiek nire jarraipena".



# baina eragin ere eragiten die



DBH2

Markel Aranjuelo. TXINTXARRI

## "Estutasuna sentitzen dut uneoro maskara jantzita"

Oriarte Institutuko ikaslea da Markel Aranjuelo lasarte-oriatarra. Hamahiru urte ditu, eta COVID-19ak eragindako egoerak "aldaketa handi bat" ekarri diola nabarmendu du. Konfinamenduan, ikasketak etxetik jarraitzea "deserosoa eta zailagoa" egin zaio eta ziurtatu du, "gogorra" egin zaiola eskolako lagunekin ezin egon ahal izatea.

Orain, ikasturte berrian ikastetxera itzulita momenturo maskarak jantzita egon behar izateak "estutasuna" sortzen diola nabarmendu du, eta zenbait unetan, irakasleen azalpenak entzuteko "zailtasunak" izaten dituela ere adierazi du.

Ikastetxera sartzeko hartu beharreko neurriak behar bezala ikasita ditu Markelek ere. Ikaslek bata bestearen atzean, ilaran jarri eta temperatura neurtzen diete lehenengo. Ondoren, gel hidroalkolikoarekin eskuak garbitu, eta norabideak markatzen dituzten geziz betetako eskilaretan barrena igotzen dira gelatara: "Beti modu ordenatuan, bata bestearen atzetik; gela batzuk eskilara batetik, eta, besteak, berriz, beste eskilaratik".

Ikasgelatako leiho eta ateak zabalik mantentzen dituzte Oriarte-Landaberrin ere: "Horrela gelak uneoro aireztatuta mantentzen dira, baina, batzuetan hotza sartzen da, eta nik orain arte hotzik sentitu ez dudan arren,

badaude gelan berokiak kendu gabe egoten diren ikaskideak".

### Distantziak mantentzea batzuetan zaila

Koronabirusari aurre hartzeko jarraitu beharreko neurriak zorrotz mantentzen saiatzen da Markel, baina, aitortu du zenbaitetan zaila ere suertatzen zaiola den-denak errespetatzea: "Kontuan hartu behar ditugun gauza asko dira, eta, zenbaitetan, erraza da horietako baten batek ihes egitea. Jolastokian, adibidez, ikasle asko batzen gara eta bakoitzak gure eremua dugu, eta distantziak mantentzen saiatzen gara, baina momentu batzuetan zaila suertatzen zaigu".

## Konfinamenduan ulertu gabekoak orain argitzen

Koronabirusak eragindako egoera berrira ohitzen ari da Malen Arzadun Oriarte-Larrekoetxe institutuko ikaslea. DBHko hirugarren maila hasi du aurten, baina, ikasle guztien antzera, ikasturte "ezberdin" bat izaten ari da berarentzat ere. Eskolara sarrera eta irteerak mailaka egiten dituztela jakinarazi du: "Bost minutuko aldearekin sartzen gara institutura maila bakoitzeko ikasleak, eta atera ere berdin egiten dugu". Horrez gain, temperatura neurtzen diete irakasleek eraikinerara sartu aurretik, eta gelara sartu baino lehen, gel hidroalkolikoaz igurtzi behar dituzte eskuak.

Sei eskola ordutan maskara jantzita edukitzeak "larritasuna" eragiten diola

nabarmendu du, eta irakasleek ere jantzita edukitzen duten arren, "ozen eta garbi" hitz egiten dutenez, horien azalpenak entzuteko arazorik ez du izan orain arte. Hori bai, arnasa behar bezala ezin duela hartu kontatu du.

Jolasgaraiako tarterako ere zehaztutako neurriek eragin diote lasarte-oriatarrari. Gela bakoitzak bere "txokoa" du jolastokian ibiltzeko, eta, ikasleek ezin dute beraien gelakoak ez diren ikaskideekin elkartu: "Kuadrilako lagun guztiak beste gela batekoak direnez, ezin dut beraiekin egon jolasgaraietan".

"Oso arraroa" da Arzadunentzat bere ikaskideekin ezer elkarbanatu ezin ahal izatea: "Ezin dugu materiala partekatu, ez

gureak ez diren gauzak ukitu ezta guk beste inori ezer utzi; arraroa egiten da orain arte ez baita horrela izan, baina bizitzen ari garen egoerak hala eskatzen duenez, hala egiten dugu".

Argi du Arzadunek ere, konfinamendu garaian, eskolako lanekin etxetik jarraitzeak zaildu egin duela ikasketen prozesua: "Orain, konfinatuta egon ginean landu genituen zenbait gairen errepasoa egiten ari gara, eta konturatu naiz, orain ari naizela etxetik lanean egon nintzenean ondo ulertu ez nituen hainbat gauza behar bezala ulertzen; irakaslearekin aurrez aurre egoteak laguntzen du horretan, zalantzak sortzen diren momentuan galdetu eta argitu daitezkeelako".



DBH3

Malen Arzadun. MALEN ARZADUN



UNIBERTSITATEA

Lituanian dago Uxue Anabitarte. UXUE ANABITARTE

## Atzerriko egonaldian jendea ezagutzea are zailagoa

Koronabirusa gurera iritsi aurretik, unibertsitateko ikasketak amaitzera Vilniusera joateko asmoa zuen Uxue Anabitarte (Lasarte-Oria, 1999) herritarrak. Ingeniaritza informatikoa ikasten ari da, eta Lituania atzerriko egonaldia egin ahal izango zuen edo ez, ia-ia bezperan jakin du. Atzerriko joandako ikasleek hamalau eguneko berrogeialdia egin behar izan dute Europa iparraldeko herrialdera iritsi bezain pronto; tartean lasarte-oriatarrak: "Unibertsitateak jarririk hotel batean egin dugu berrogeialdia; eurak arduratu dira guri janaria eta behar genituen gauzak ekartzeaz".

La bi aste horiek igarota, egunerokoari martxa hartzen ari zaio, baina, kontziente da koronabirusa bere atzerriko egonaldia baldintzatzen ari dela, zentzu askotan. Aurrez aurreko eskola bakarra du Anabitartek, gainerakoak online egiten ari dira. Hortaz, astean egun bakarrez joan behar du unibertsitatera eta egun horretan elkartzeko da ikaskideekin: "Herrialde berri batera iristen zarenean, normalean ez duzu inor ezagutzen, eta unibertsitatera astean behin joateak, are zailagoa bihurtzen du harremantzea; ez duzu inor ezagutzen eta ez dakizu norengana jo".

Bestela, Euskal Herriarekin eta Espainiar Estatuaren egunerokoekin alderatuta, giro

"nahiko lasaiekin" egin du topo herritarrak Vilniusen. Azaldu duenez hiri horretan ez da Espainian bezain beste kutsatu egon, eta hori dela-eta, ez dituzte Espainian jarraitu beharreko neurria asko jarraitu behar: "Leku publiko itxietan maskara jartzea ezinbestekoa da, baina kalean ez dugu jantzita eramateko derrigortasunik". Egoera ezberdina bizitzen ari direnez Vilniusen, antzeman du Espainiatik iritsitako ikasleek oso zorrotz mantentzen dituztela segurtasun neurriak, bertakoekin alderatuta. Adibide bat ere jarri du: "Unibertsitateko eskoletan irakasleak distantziak mantentzen dituzte, ez du maskararik jantzen".



# LASARTE-ORIAN EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

## IZENA EMAN!



Azaroaren 20tik abenduaren 4ra Euskaraldiaren bigarren edizioa izango da. Milaka belarriprest eta ahobizik, 15 egunez, eguneroko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala egingo dugu.

Zeuk ere euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egin nahi baduzu, 16 urte edo gehiago badituzu, eta euskara ulertzen baduzu, eman ezazu izena.

Ariketa egiteko moduaren arabera, belarriprest edo ahobizi izan zaitezke.



**Belarriprest:** "Lekua, gaia edo egoeraren arabera erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, ez dut beti euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut; eta horixe eskatzen diet modu esplizituan."



**Ahobizi:** "Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa lebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean."

**Gogoratu! Rola aukeratzean, gakoa jokaeran dago, ez gaitasunean.**



**Badator Euskaraldia! Ariketa sozial hori herri mailan sustatuko duten eragileek talde argazkia atera dute asteon Okendo plazan. Kide batzuen eskuetan ikusten diren kutxa horietan sartu behar dira izena emateko orriak, azaroaren 20a baino lehen. 16 urte edo gehiago badauzkazu, 'ahobizi' edo 'belarriprest' izan zaitezke aurten ere. Animatu, parte hartu eta eman astindu bat zure hizkuntza ohiturei!**



# IZENA EMATEKO 3 AUKERA DITUZU

## 1 HEMEN AURKITUKO DUZUN DIPTIKOA BETE ETA KUTXA BATEAN SARTUTA

TXINTXARRI aldizkari honetan Euskaraldian parte hartzeko diptikoa topatuko duzu.

'Ahobizi' edo 'belarriprest' izan nahi duzun adierazi behar duzu, zure datuak bete eta herrian zehar aurkituko dituzun kutxetako batean sartu.

Kutxa horiek puntu finko batzuetan daude: eskoletan, enpreetan, komertzioetan...

Diptikoan ikusiko duzu zeintzuk diren puntu finko horiek.



## 2 ONLINE

<https://izenematea.euskaraldia.eus/>  
**www.euskaraldia.eus**



## 3 QR KODE BIDEZ

Gerturatu  
zure  
mugikorra  
eta izena  
eman!





**Nerea Eizagirre**

Real Sociedad taldeak Iberdrola Ligari hasiera emango dio asteburu honetan. Uztaile bukaeran hasi zuen denboraldi-aurrea taldeak eta bi hilabeteko prestaketan osten, Deportivo Abanca izango du aurrean. Bidean Euskal Herriko Kopa ere irabazi du. Horri guztiari buruzko solasaldia izan dugu Iraia Iparragirre Argandoña (Lasarte-Oria, 1995) jokalarirekin.

**Zer moduz joan da denboraldi-aurrea?**

Entrenamendua egiteko aukerak izan ditugu eta entrenatzaileak zehaztutako helburuak lantzen saiatu gara, baina aurkako kanpo faktore bat izan dugu. Egoera dela-eta, lagunarteko gutxi jokatu ditugu eta azkenean guk partidak jokatzen jakiten dugu zein mailatan gauden, entrenamenduetan gero hobetzen joateko.

Entrenatu dugu, gustura entrenatu dugu, gauzak landu ditugu, baina lehiatzeko aukera gutxi izan dugu eta horrek denboraldi-aurrea zaildu du.

**Lagunartekoak aipatu dituzu, lau izan dituzue. Nola ikusi duzu taldea norgehiagoka horietan?**

Lantzen duzuna, partidetara eramaten duzu eta gauza politikak atera zaizkigu, baina oraindik gauza asko ditugu lantzeko zeren eta perfektua izango balitz dena, zertarako ari gara entrenatzen? Baina beti daude gauzak eta sortzen dira akatsak.

Gure kasuan Eibar izan da gure maila bereko talde bakarra. Hor ikusi ahal izan dugu zein talde duten.

Azken partida Alavesen aurka izan da aurreko asteburuan. Zelaiak ez zigun lagundu. Baina egin genituen gauzak ere baliagarriak dira. Etorkizun batean horrelako zer edo zer gertatzen bada nola aurre egin edo nola moldatu ikasi dugu.

**Denboraldi-aurre horretan, Euskal Herriko kopa sufrituta eskuratu zenuten Athletic Cluben aurka. Penaltietan erabaki zen irabazlea. Penaltietan erabaki zen irabazlea.**

Polita izan zen finala. Futbolak hori dauka.

Athleticek nire ustez ez zuen erakutsi duen gaitasuna. Egia da jende asko lesionatua zuela.

Guk gure partida txukun egin genuen, baina partida bat irabazteko golak egin behar dira; aukerak izan genituen eta ez genuen golik sartu. Horrek baldintzatu zuen partida, penaltietara iritsi arte.

# "Ezingo gara erlaxatu. Gauzak momentu oro alda daitezke"

**IRAIA IPARRAGIRRE ARGANDOÑA FUTBOL JOKALARIA**

Iberdrola Liga hasi zen lehengo asteburuan. Real Sociedad taldeak eta Lasarte-Oriako atzelariak denboraldi berriari ekingo diote asteburuan Deportivo Abancaren aurka



Iraia Iparragirre, Euskal Herriko kopako finalean lehian. REAL SOCIEDAD

**Ikusi elkarrizketa osoa txintxari.eus webgunean**

Polita izan da aurten berriro ere Euskal Herriko Kopa irabaztea.

Guk landutako gauzak ateratzeko aukera izan genuen eta partida txukuna egin genuela ikusi zen. **Iberdrola Liga hasi zen lehengo asteburuan. Iragarri baino hilabete beranduago hasi da. Nola eraman duzue atzerapen hori?**

Ezgonkortasun horrek, ez jakitea noiz hasiko zaren, egoera arraro batera eramaten zaitu.

Zeren badituzu zure helburuak lortu edo landu nahi dituzunak. Baina lehiak esaten dizu non zauden eta azkenean denboraldi-aurrea hainbeste atzeratzeak ere oso luze egin du.

Gauzei alde ona atera behar zaie eta behintzat hasi da liga. Ez dela gutxi. Denboraldi-aurrean ginen galdezka, 'Noiz hasiko da?', 'Hasiko gara?'. Azkenean hilabete beranduago, baina hasi gara.

Lehengo jardunaldia aurrera eraman ahal izan da, guk ez; baina orokorrean aurrera eraman da ez dela gutxi.

**Zuek ez, aipatu duzu. Real Sociedad-Rayo Vallecano partida atzeratu da, Rayok denboraldi-aurrea besteak baino beranduago hasi zuelako. Nola egin diozue aurre horri?**

Zure ligako beste gainerako taldeek lehia hasi dutela dakizunean eta zuk partida jokatu ezin duzula ikusteak, 'beste partida bat itxaron behar dugu', esaten duzu.

Baina ez ginen behintzat asteburu osoa egon jolastu gabe eta beti ateratzen dira gauza positiboak. Azkenean entrenatzeko aste bat gehiago ere izan dugu eta aprobetxatzen saiatu gara ahalik eta gehienen.  **Ondorioz, Deportivo Abancaren aurka hasiko duzue Liga. Nolako partida aurreikusten duzue?**

Ez da partida erraza izango. Talde txukuna dute. Azkar jokatzen dute eta horrek adi egotera behartuko gaitu. Haiek lehiatu dute Ligako lehen partida; guk ez.

Guk landu ditugun gauza txukun horiek partidara eramaten baditugu eta dakigun bezala jolastu, nik uste dut min egiteko aukera dugula. Partida lehiatua izango dela uste dut. Eurek dituzten abilezia guztiei gure jokoa ongi eginaz aurre egiten badiogu ea garaipena lortzen dugun eta lehen hiru

puntuak etxera ekartzea lortzen dugun.

**Seigarren postuan amaitu zuen liga Real Sociedad aurreko denboraldia. Aurten zein da helburua?**

Beti daukazu helburu handi bat, lehen postu horietan mantentzea.

Aurten aldaketa asko egon dira, jokalaria aldaketa eta beste talde indartsu bat sartu da, Real Madril.

Lehen helburua da hasierako partida hauek txukun egitea da eta goiko postuetan hasia. Gerora begira bertan mantendu ahal izateko. Hori ez zen gutxi izango.

Baina partida asko egongo dira astean zehar jokatuko direnak, denbora berreskuratzeko prozesu horretan.

**Astean zehar jokatu beharreko partida horiek eragina izango dute, ezta?**

Taldearen arabera, zein lesio dauden, hainbeste partida hain denbora gutxian jolastuta... Guk ez dugu hori askotan bizi izan.

Asteburuan jolastu, asteazkenean jolastu... Hori urtean zehar momentu zehatz batzuetan emango da eta horrek baldintzatu du taldearen egoera fisikoa. Denboraldi-aurre ona egin baduzu, horrek emango dizu aukera fisikoki mantentzeko hainbeste partida dauden denboraldi honetan.

Behintzat ez lesionatzea, taldea indartsu mantentzea... Lehen postuetan mantentzea ez da lan erraza izango, baina helburua hori izango litzateke.

**Bartzelona eta Atletico Madrid izango lirake talde indartsuenak...**

Bai eta Real Madrid. Real Madrid aurten sortu den taldea da. Baina kalitate handiko jokalariek ditu eta goiko postuetan egoteko borrokatuko dira ziurrenik.

Bartzelona, Atletico Madrid, Real Madrid... Levantek ere talde txukuna dauka.

Ikusiko da, edozer gerta daiteke... Argi dago ezingo garela erlaxatu zeren eta gauzak momentu oro aldatu baitaitezke. **Aurten gainera bi talde berri gehiago daude, tartean Eibar.**

Pozgarria da gero eta euskal talde gehiago egotea. Ni behintzat poztan nau. Hain leku txikian, Euskal Herria bezalako leku txiki batean gero eta talde gehiago gaude lehen mailan eta polita da. Bai euskal derbia deitzen zaiolako, baita bertako jendea gertuko delako ere. Beti izan da polita hori.



# Garaipenarekin hasi du senior taldeak lehia

Sei hilabeteren ostean, Ostadar SKTko saskibalo saileko seniorrek TAKE garaitu zuten, Maialen Chourraut kiroldegian. Denboraldia "normal jolastea" espero du taldeak eta lehen postuetan amaitzea du helburu playoffa jolastu ahal izateko

## Txintxarri

Saskibalo partidak itzuli dira Maialen Chourraut kiroldegira. Protokoloak, aldagela eta dutxak ezin erabili, ikuslerik gabe... Ostadar SKTko senior taldeak hasi du denboraldia. Prestaketa motza eta jokalarik aldaketa ugari izan arren, ederki gailendu da Ostadar SKT, 60-30.

TAKE Tolosako taldeak gauzak beti zailtzen omen dizkio Ander Otaegi entrenatzailearen hitzetan, baina orain Ostadar gailendu zen nahiz eta lehen minutuetan asko kosta zitzaizen jokoan sartzea. "Ez genuen asmatzen zonakako defentsa erasotzen eta defentsan ez ginen haien jaurtiketetara iristen".

Joko aldaketa egin eta goitik presionatzen hasi zen taldea, baloiak lapurtu eta kontraerasoak eginez 17-5 amaitu zen lehen laurdena.

Bigarren laurdenak berdinarra izan zuen. Tolosako taldeak ezin zuen talde urdin-beltzaren presioa gainditu eta baloi asko lapurtu zituen. "Eraso estatikoan gehiago kostatzen zitzaigun, baina markagailua puskatzea lortu genuen. Atsedendira 33-12 iritsi ginen".

Hirugarren laurdena erabakikigarria izan zen, 50-22. Tolosarrek zortzi jokalarik bakarrik zituzten jolasteko prest eta nekea nabaritu zuten. Ostadarrek, aldiz, hamabi jokalarik izanda, errotazio luzea egin eta erritmo altua mantendu zuen.

Azken laurdenean partida erabakita zegoen. Erritmoa mantsotu zen eta saskiratze gutxi ikusi ziren, azken 60-30era iritsi arte.

## Jokalarik dantza

Ostadar SKTko senior taldeko entrenatzaile Ander Otaegiren hitzetan, hasiera "ona" izan da. Baina lan asko daukate aurretik. "Orduak falta zaizkigu eta asteak aurrera joan ahala, entrenamendu



Ostadar senior taldeko kideak, larunbateko partida hasi baino lehen. OSTADAR SASKIBALOA

eta partidekin hobetzen joango gara".

Irailaren 9an, asteazkenarekin, hasi zen entrenatzen senior taldea. "Lau asteko denboraldi-aurre motza izan dugu. Sei entrenamendu eta bi lagunarteko jokatu ditugu, hori izan da aurrez egindako gutzia. Gauza gutxi".

Gainera, taldeak jokalarik aldaketa ugari izan ditu. Alicia Jimenez 1. maila nazionalan dagoena Hondarribira joan da; Laura Gutierrezek eta Ixaso Ariztimuñok utzi egin dute; Olatz Bardaji, Elene Arruti eta Denis Lopez junior jokalariek mailaz igo dira; Haizea del Olmo Erasmusera joan zen eta itzuli da, baina orain Uxue Anabitarte da urtarrilerarte arte kanpoan egongo dena. Horri guztiari, Yaiza Navaroren itzulera gehitu behar zaio. "Urtebete lesionatuta egon da".

Dantza guzti horren ostean, hamahiru jokalarik izango ditu Otaegik aurtentzen. Horrek deialdiak egitera behartuko du entrenatzailea. "Larunbatean lehen aldiz deialdi bat egin behar izan nuen eta jokalarik bat kanpo utzi", azaldu du.

Horrez gain, aurtengo denboraldian COVID-19ak ere eragina izango duela argi du

entrenatzaileak eta partidaz partida joan beharko dira ikusten. "Ea egoera honetan normal jolasteko aukera dagoen. Aste honetan, COVID-19a dela eta, gure ligako partida bat bertan behera geratu da".

## Lehenen artean

Hala ere, senior taldea lehen postuetan egotea espero du Otaegik. "Printzipioz aurrean ibili behar gara, urtero bezala. Luberrri, Zarautz, Oiarso eta Mondragon taldeekin batera borrokatuko gara. Azken talde hori aurtentzen sartu da ligan. Talde gaztea eta oso ona da. Beraz, lehen bosten artean egon beharko ginateke."

Lehen postuetan ibiliz gero gainera, playoffa jokatuko luke talde urdin-beltzak. "Ligako hamabi taldeetatik zortzi sartuko dira playoffean eta bakarra igoko da mailaz. Guztia ongi bidean, hori maiatza aldera erabakiko da".

Horretarako puntuak lortu beharko ditu taldeak. Larunbatean, Goierri AYMA taldea izango du aurrez aurre, Urretxun. "Zubia da, eta jokalarik asko faltako zaizkigu. Partida zaila eta gogorra izango da", aurreratu du Ostadarreko entrenatzaileak.

# Naroa Furundarena, bi dominarekin pozarren

20 urte azpiko Espainiako txapelketan bi probatan parte hartu du Ostadar SKTko atleta gazteak Madrilen

## Txintxarri

Asteburuan Madril itxita egon arren, Espainiako hiriburuko Vallehermosoko estadioak atletismoko 20 urte azpiko Espainiako txapelketari aterpe eman zion urriaren 3an eta 4an. Ostadar SKTko Naroa Furundarena bertan izan zen luzera-jauzi eta jauzi hirukoitzeko probatan lehiatzen eta bietan domina eskuratu zuen.

Larunbatean, luzera-jauziko probako lehen saiakerak ordea, ez zuen gerora lortu zuen zilarrezko domina iragartzen, ez baitzen balekoa izan. Baina Furundarenak ez zuen amore eman eta bigarren jauzian, 5,63 metro egin zituen. Pixkanaka hobetu zuen, domina emango zion 5.69 metroko jauzia lortu arte.

Jauzi hirukoitzeko proban, berriz, hirugarren mailan egon zen podiumean igandean. Pixkanaka hobetzen joan zen gaztea. Lehen saiakeretan ez zen 12 metro iristen eta luzera-jauziaren antzera, bosgarren jauzian lortu zuen langa igaro eta domina lortzea, 12,15 m.


Oscar Goikoetxea, Ostadar Atletismo saileko prestatzaileak lehiaketa espero baino hobeto joan dela onartu du eta Furundarenaren lehiaketaren



Furundarena, dominekin. OSTADAR ATLETISMOA

irakurketa ona egin du. "Oso ondo lehiatu da. Bi probetako baldintzak ongi kudeatu ditu, haize aldakorra eta temperatura baxua, eta, ondorioz, bere marka pertsonaletatik oso gertu egon da".

Ostadar SKTko Atletismo saileko arduradunak itxialditik txapelketaraino egindako lanaren fruitu dela azpimarratu du, baita Furundarena Ostadar Atletismo saileko etorkizuneko atleten erreferente dela ere. "Martxoan pistako Espainiako txapelketa bertan behera geratu ostean, itxialdian eta normaltasun berrian gogor egon da entrenatzen. Egin duen ahaleginarengatik eta izan duen jarraikitutasunarengatik saria jaso du".



ESKOLA KIROLA

# Kirolarekin gozatzeko ordua

Martxotik etenda egon ostean, urriaren 5ean, Lasarte-Oriako Eskola Kirola egitasmoak bere jardunari ekin zion. Segurtasun- eta osasun-neurri guztiak jarraituz, Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoek kirolaz gozatzeko tarteak dute, berriro ere. Lehen hiruhilekoan kirol indibidualak eta jokoak egingo dituzte. Egoeraren garapenaren arabera, jarduerak moldatuko dela iragarri dute ekimenaren antolatzaileak.



# Bigarren mailako buruz burukoa jokatzeko justu

Axier Arteaga, Arteaga II.ak Bakaikoaren aurka galdu zuen buruz buruzko txapelketako kanporaketa. Hatz bat hautsi zuen gainera eta hiru aste beharko ditu guztiz osatzeko. Intza elkarteko seniorrek, berriz, garaipen berria lortu zuten Ezker Hormako txapelketan

## Txintxarri

Asteburu zaila izan du Axier Arteaga herritarrak. 1. mailako buruz buruko txapelketatik kanpo geratu da eta ezker eskuko hatzaren haustura bat dela-eta, hiru astez pilotalekueetatik kanpo egongo da.

Urriaren 2an, ostiralarekin, Bakaikoaren aurkako partida jokatu zuen Arteaga II.ak, Etxarri-Aranatzen. Irabazleak 1. mailako buruz burukoan jokatzeko txartela eskuratuko zuen; galtzaileak, berriz, bigarren mailakoa.

Kanporaketa ez zen Arteaga II.a espero bezala joan. Huts ugari egin zituen herritarrak partidaren zehar eta ezin izan zuen bere erritmoa ezarri.

Bakaikoak, berriz, tantoak ongi jolastu eta amaiera ederra emateko gai izan zen. Ondorioz, tartea irekitzen joan zen eta Arteaga II.ak ezin izan zuen ezer egin partidaren patua aldatzeko eta 14-22 gailendu zen pilotari nafarra.

"Tentsio handiarekin irten nintzen kantxara eta ez nuen nire jokorik egin. Bakaikoari ezer kendu gabe. Ni baino gehiago izan zen. Partida txukuna jokatu zuen eta merezimenduz irabazi zuen," onartu du Lasarte-Oriako pilotariak.



Axier Arteaga, Arteaga II.a, artxiboko irudian partida jokatzen. TXINTXARRI

Aurkako emaitzaz gain, beste ustekabeko bat ere eraman zuen Arteaga II.ak partidaren, hatz bat hautsi zuen. "Kolpe txarra hartu nuen ezkerreko eskuko hatz batean eta puskatu egin nuen".

Egun batzuk entrenatu gabe egon beharko du Lasarte-Oriako pilotariak eta bigarren mailako txapelketako parte-hartzea ez da ziurra. Hala ere, baikor agertzen da herritarra. "Esan didate hiru aste beharko dituela ondo sendatzeko. Nahiko justu ibiliko naiz, baina bigarren mailako buruz buruko

txapelketarako iristea espero dut".

Txapelketa horretan paper txukuna egiten eta ahalik eta urrutien iristen saiatuko da Arteaga II.a. "Baina egoera ezegonkorra da eta espero jokatu ahal izatea," atxiki du pilotariak.

## Garaipenaren bidea

Intza senior bikoteak Ezker horman egiten ari den lehiaketa bestelakoa da, ordea. Hiru jardunalditik hiru irabazi dituzte. Oraingoan Legazpiren aurka lortu zuen garaipena Jon Pello

## Pilotarien grebak aurrera darrai

Baikok pilotariekin izandako jokabidea gaitzesteko greba egingo dute enpresa horretako 15 pilotarik. Urriaren 2an, asmoa agertu zuten Bilboko ELA sindikatuaren egoitzan eta asteazkenean Baiko enpresarekin bilera izan ostean, atzo berretsi zuten euren erabakia.

Irailaren 15ean, eman zuten lehengoz egoeraren berri Tolosako Beotibar pilotalekuan egindako agerraldian. Enpresak haiekin bildu edo hitz egiteko borondate ezaren aurrean, mobilizazioak egiteko erabakia hartu zuten Baikoko pilotari taldeak. Are gehiago, enpresan duten egoera "jasangaizta" dela salatu zuten urriaren 2an egindako prentsaurrekoan, besteak beste, argitara emanaz, kaleratzeko mehatxuak jaso dituztela.

Urriko hamabi egunetan egingo dituzte lanuzteak: urriaren 9an, 10ean, 11n, 12an, 16an, 17an, 18an, 19an, 23an, 24an, 25ean eta 26an.

Baiko enpresako pilotaria da Axier Arteaga lasarte-oriatarra ere, eta beste zenbait aldarrikapenen artean, lan baldintza duinak, errespetua eta gardentasuna eskatu zituzten agerraldian.

Grebaren deialdiaren ostean, Baiko enpresak bilera batera deitu zituen pilotariak asteazken honetarako. Bileran baino lehen, Axier Arteaga Arteaga II.ak onartu bezala, "bilera ongi ateratzea espero dugu eta grebara iritsi behar ez izatea. Baina dena airean dago".

Tamalez burumakur atera ziren pilotariak. Enpresak haien aldarrikapenei ez erantzutea edo "hitz egingo dugu" soil batekin erantzutea bidezkoa ez zela adierazi zuten biletaren ostean. Baikoren egoera ekonomikoari buruzko gardentasun falta ere salatu zuten.

Enpresak, berriz, oharra argitaratu zuen. Bertan "plantilla osoa partaide egitea, beronek erabakitako batzordeen edo ordezkari bitartez elkarrizketa bideratuz," proposatzen du. Batzorde horren bitartez pilotariak adierazitako puntuei buruzko planteamenduak aztertuko liriteke, "hala nola barne-araudiaren berrikuspina, langilearen baldintzak edo baita enpresari eragin diezaioketen egoeraren araberrako edo egitura-zailtasunen aurrean kasu bakoitzean har daitezkeen erabakiak ere".

Artetxek eta Asier Elolak osatutako bikoteak, 17-22. Partida zaila zuten aurretik Intzako pilotariak, baina ederki egin zioten aurre.

2. kadete mailan, berriz, bestelakoa izan zen egoera. Bikote gazteek ezin izan zituzten arerioak garaitu.

Intza 1 bikoteak Michelingo kirol gunean jokatu zuen Oiarpe 2ren aurka. Oiarpe 2ren aurka Haritza Diaz de Gereñu eta Jokin Lizaso bikoteari nagusitu zitzaion, 8-22.

Etxetik gertu jokatu zuen Intza 2 bikoteak, Añorgan. Beñat Olazabal eta Pedro Elosegik Intza 1 bikotearen zorte bera jasan zuen, 22-10.

Jose Felix Solano Intzako prestatzailearen hitzetan, kadeteen emaitzek ez dute bi partidetan egon zen berdintasuna erakusten. "Partida borrokatuak izan dira biak, baina Oiarpe 2ren aurka eta Añorgako bikoteek ziurtasun gehiago izan dute pilotatzen eta ondorioz, tantoak lortzen joan dira".

## Asier Pozo, Europako txapelketan lehiatzen

Jazarpen proban lehiatu da Lasarte-Oriako txirrindularia eta zortzigarren postua eskuratu du

## Txintxarri

Atzo hasi zen junior eta 23 urte azpiko pistako Europako txapelketa, Fiorenzuola D'Arden (Italia). Bertan da Asier Pozo herritarra Espainiako Txapelketan lehiatzen.

Txapelketako lehen saioan, taldeko proben sailkapenak jokatu ziren. Pozok jazarpen probako lehiaren parte hartu zuen.

Laukoko Euskadiko selekzioko kide Jaime Romerok, Iker Bonillo valentziarrak eta Marcel Pallares

katalanak osatu zuten. Sailkapen proban zortzigarren postua eskuratu zuten 4'31"110. kronoa egin ostean.

Partehartze honekin, Pozok amaiera bikaina emango dio junior mailako bere ibilbideari. Hilabete batzuk barru 23 azpiko mailan lehiatuko da Lasarte-Oriako gaztea.

## Errepidean

Euskal Herrian ere izan dira errepideko probak. Beñat Carbayeda juniorrak, esate baterako, Araba I. Klasikoan



Pozo eta taldekideak, lehiatzen. E. TX. F.

(Maeztu) parte hartu zuen eta brontzezko postua eskuratu zuen. Ihesaldi nagusiko laukoan sartu zen herritarra, baina Azparrenek eta Arrietak aurre hartu eta azkenean hirugarren postua lehiatu behar izan zuen.

Eskolako kadeteak, berriz, Zumaiako sarian parte hartu zuten, urriaren 3an. Daniel Fursenko seigarren izan zen pelotoi nagusiko lehen postuetan sartuta. Adur Tapia 26. postuan iritsi zen helmugara eta Eneko Aranguren, 31. postuan.



## ZORION AGURRAK



**Manolo**  
Zorionak! Zure emazteak eta semeak egun zoragarri bat igarotzea opa dizugu. Ondo pasa!



**Luka**  
Zorionak Luka! Konturatzerako urtebete pasa da familia handitzera iritxi zinenetik eta nola borobildu duzun gainera! Eskerririk asko eta muxu pottolo bat!!!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

### Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrrak eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.


### Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.


Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


### Ostirala, 9




### Larunbata, 10




### Igandea, 11




### Astelehena, 12




### Asteartea, 13



### Asteazkena, 14



### Osteguna, 15



## HILDAKOAK

**Antonio Castro Fernandez.** Urriaren 6an.  
**Patxi Castro Poyato.** Urriaren 2an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 09	GANDARIAS	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
LARUNBATA, 10	LASA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 11	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 12	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 13	DE MIGUEL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 14	DE ORUE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 15	GIL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.** Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERRI AEK: 607 625 233

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAK: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

	2	8					3
				9		1	4
	4	1		6		2	7
1	8			3			
			4	8	6	3	1
4	3						8
	1	3				2	
			1		7		3
				5	3	1	

## KOMIKIA



## OHARRAK

### Kirol-garaikurrak jasotzeko aukera

Landaberri Guraso Elkarteak jakinarazi duenez, Garaikoetxeeraikineko sarreran egotenziren apalak kendu egin dituzte, sarbidea "atseginagoa eta praktikoagoa" bilakatze aldera. Armairu horietan urteetan zehar pilotutako kirolgaraikurrak erakutsi izandituzte orain arte. Trofeo horietakoren batberreskuratu nahiko baluherritarren batek, eskaera egindezake urriaren 10era arte, larunbatez. Formulario bat betebeharko du Internet erabilita. Landaberri Guraso Elkarteakeskaera jasoko du, eta interesa erakutsi duen horrekin hitzorduazehaztuko du, garaikurren bilapasa dadin.

### Enpresa berrientzako laguntzak

Lasarte-Oriako Udalak 35.000 euro banatuko ditu merkataritzaren, ostalaritzaren edo zerbitzu pertsonalen arloan lehen pausoak ematen dituzten enpresei. Laguntzen eskaera epea ireki da eta urriaren 31ra arte jasoko dira enpresen eskariak.

Merkataritza jarduerako enpresak eskatu ahaliko dituzte laguntzak, beti ere, deialdiko baldintzak betetzen badituzte. Horien arabera, 2019ko azaroaren 1etik 2020ko urriaren 31ra arte Lasarte-Orian sortu diren enpresek bakarrik eskatu ahaliko dituzte laguntzak. Beraz, enpresaren egoitza sozialak eta fiskalak Lasarte-Orian egon behar dute. Eredu baimenduan sarbidea duen establezimendua ere izan behar du herrian. Gainera, mikroenpresa izan behar da, hau da, 10 langile baino gutxiago izan behar ditu; enpresak ezin du aurretik Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan jarduera berean edo antzekoan matrikulatua egon eta eskualdatzea bada, ez da enpresa berritza joko enpresaren titular berria eta eskualdatzen duen pertsona ahaideak badira. Horrez gain, negozioiek bideragarritasun programa bat aurkeztu beharko dute. Epea urriaren 31n amaituko da. Deialdi horretan eskaintako laguntza ezingo da gastu berarengatik jasotako beste edozein laguntzari metatu. Lasarte-Oriako Udalak laguntza horiek eskaintzen dituen bosgarren urtea da eta beti harrera ona izan dutela azpimarratu du Sozioekonomia zinegotziak. "Lehen guztiz amaitzen ziren. Iaz ez ginen guztia banatzera iritsi; 30.000 bat euro eman genituen laguntzetan". Informazioa udaleko webgunean, 943 376 179 telefonoan edo d.avila@lasarte-oria.eus helbide elektronikoa eskuratu daiteke.



AZOKA TXIKIA

**LANA**  
**ESKARIA**  
Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.  
Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Jatorrizko hizkuntza dut, eta esperientzia ere bai

eskoletan, institutuetan eta helduentzako eskoletan. 691 630 313/ bentley.ma@gmail.com

**ETXEBIZITZAK**  
**ERRENTAN**  
Etxea partekatzeke neska baten bila gabiltza. Interesatuok jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da lasarten bizi desn familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

**SALDU**  
Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.



**NABARMENDU ZURE EDUKIA**  
Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

ESKELA

**ESKELA**

**Patxi Castro Poyato**  
-Beti gurekin-  
2020ko urriaren 2an hil zen, 58 urte zituela.

Gero arte Patxi.  
Kontatuko diguzu Ostadarra nolakoa den gertutik.

Ostadar SKTko kide eta lagunak

**ESKELAK JARTZEKO: 646 82 44 66**  
edo  
[PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

- Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€


# txintxarri

Etxe ondoan, hanean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz  
jarraitu herriko albisteak sarean



[www.txintxarri.eus](https://www.txintxarri.eus)

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Administraria**  
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**  
Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**  
Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

**Banatazaileak**  
Julene Iraola eta Uxue Odriozola,  
Egoltz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose  
Lanchas, Iñigo Garcia eta Igone  
Mandizabal.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**  
Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**EGOITZA NAGUSIA**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94  
**ISSN:** 1134-0053  
**Tirada:** 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 9

### USURBIL Hitzaldia

Bizi bide taldeak *5G teknologia, osasuna eta ingurumena* hitzaldia antolatu du. Uhin elektromagnetikoen gizabanakoengan eta ingurumenean eragin ditzaketen kalteen inguruan hitz egingo du ElektroKimikoSensible kaltetuak taldeak eta. Aldez aurretik izena ematea ezinbestekoa da eta doakoa, eta 23 pertsonentzako edukiera zehaztu dute. Ohar bat ere helarazi dute; ekitaldira bertaraten direnak perfumerik gabe eta mugikorrek itzalita edo "hegaldi moduan" jartzea eskatu dute.

Potxoenea, 19:00etan.

## LARUNBATA 10

### AMASA-VILLABONA Kontzertua

Aiztondoko emakume musikariek osatutako taldea da hau Dudik-pe musika taldea. Jakinarazi dutenez, ez da sarrerarik banatuko; edukiera bete arte baimenduko diete sarrera ikus-entzuleei. Eguraldi onarekin Erreboteko plazan egingo dute emanaldia, eta eguraldi txarra bada, Gurea antzokian. Erreboteko plaza/Gurea antzokia, 12:00etan.

### USURBIL Bisita gidatua

Harria Hitz bisita gidatua herrigunean: Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa plaza, Tapiaren murala, Askatasuna plaza, Sagardoaren monumentua. Prezioa: 5 euro, eta izen-ematea aldez aurretik egin behar da 688 81 80 17 telefono zenbakian edo [info@kultour.pro](mailto:info@kultour.pro) helbidean. Usurbilgo frontoia, 12:00etan.

### USURBIL Kontzertua

Esteban Elizondo Iriarte organo jotzailearen emanaldiaz goatzeko aukera izango da Salbatore Parrokian. Sarrera doakoa da, baina gonbidapenak eskuratu behar dira, egunean bertan. Antolatzaileek jakinarazi dute edukiera mugatua izango duela emanaldiak. Salbatore Parrokia, 19:00etan.

## IGANDEA 11

LASARTE-ORIA Zinema



**LASARTE-ORIA Euskal Jaia.** Euskal Jaia ez du ohiko moduan ospatuko Lasarte-Oriak aurten. Parte hartu ohi duten eragileek erabaki dute ospakizunari buelta bat eman eta aurten ekintza sinbolikoa egitea. Urriaren 17an, larunbatez, baserritarrez jantzita kalera ateratzera animatu dituzte herritarrek, eta baita etxeetako balkoiak zein komertzioetako erakusleihoak atontzera ere.

Lasarte-Oria, egun osoan zehar.

*Bihurri jatetxetik kale gorrira* filmaz gozatu ahal izango dute etxeko txikiak. 17:00etan izango da hitzordua, eta, sarrerak, 3.80 euroan daude salgai.

Kultur etxea, 17:00etan.

## ASTEAZKENA 14

### AMASA-VILLABONA Hitzaldia

Lurgatz talde feministak antolatuta, *Emakumea, espetxea eta zaintza* mahai ingurua izango da. Emakumeei, kartzelari eta zaintzari buruz hitz egingo dute, eta Maite Aranaldek, Katia Reimberge, Esti Amenabarrok, Estitxu Eizagirrek, Maite Ortizek eta Nekane Txapartegik hartuko dute parte. Izen-ematea ezinbestekoa da, eta horretako, [lurgatztaldefeminista@gmail.com](mailto:lurgatztaldefeminista@gmail.com) helbidera idatzi behar da.

Amasa-Villabona, 19:00etan.

## OSTEGUNA 15

### URNIETA Hitzaldia

Urnietako herriak betidanik izan du harreman estua saskigintzarekin, nahiz eta gaur egun desagertutako lanbidea izan. Aurreko mendearen hasieran, 17 saskigile familia ba omen ziren Urnietan eta horren berri emateko, herriko azken

saskigile Antonio Garmendia oroituz, lanbide kuttun horren gaineko hitzaldia eskainiko du Luis Mari Zaldua Euskal Filologiako doktore eta Euskaltzain urgazleak. Prezioa doakoa da eta euskaraz izango da hitzaldia.

Sarobe gunea, 19:00etan.

## OSTIRALA 16

### URNIETA Ipuin kontalaria

Urnietako udal liburutegiak, irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin, etxeko txikiakentzako ipuin kontaketa saioak antolatu ditu. Saioa lau urtetik gorako haurrentzako izango da eta doakoa. Marisa Tabernero arituko da ipuin-kontalari lanetan, euskaraz.

Lekaio kultur etxea, 17:30ean.

## OSTIRALA 17

### LASARTE-ORIA Euskal Jaia

Ttaku Kultur Elkarteak ez du urteroko Euskal Jaierik antolatuko aurten, baina ekintza sinboliko gisa, kalera baserritar jantzita irteteko deia egin dute antolatzaileek. Horrekin batera, balkoiak eta erakusleihoak atontzeko eskaera egin diete herritarrei.

Lasarte-Oria, egun osoan zehar.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Bihurri, jaurettxetik kale gorrira**  
Igandea: 17:00.

### ANDOAIN

#### BASTERO

**Pinocho**  
Larunbata: 17:00.  
Igandea: 17:00.

#### Akelarre

Larunbata: 19:30, 22:15.  
Igandea: 19:30.  
Astelehena: 19:30, 22:15.

### HERNANI

#### BITERI

**Las niñas**  
Ostirala: 22:30.  
Larunbata: 19:30.  
Igandea: 19:30.  
Astelehena: 16:30.

### Klara y el ladrón de manzanas

Larunbata: 16:30.  
Igandea: 16:30.

### USURBIL

#### URBIL

#### Akelarre

Ostirala: 21:00.  
Larunbata: 21:00.  
Igandea: 21:00.

#### Como perros y gatos: La patrulla unida

Ostirala: 16:00, 18:30, 19:30.  
Larunbata: 16:00, 18:30, 19:30.  
Igandea: 16:00, 18:30, 19:30.

#### El arco mágico

Ostirala: 15:50, 18:20.  
Larunbata: 15:50, 18:20.  
Igandea: 15:50, 18:20.

### Eso que tú me das

Ostirala: 19:40, 22:00.  
Larunbata: 19:40, 22:00.  
Igandea: 19:40, 22:00.

#### Explota Explota

Ostirala: 20:50.  
Larunbata: 20:50.  
Igandea: 20:50.

#### Greenland: El último refugio

Ostirala: 16:10, 19:10, 22:10.  
Larunbata: 16:10, 19:10, 22:10.  
Igandea: 16:10, 19:10, 22:10.

#### Padre no hay más que uno 2

Ostirala: 16:50, 21:50.  
Larunbata: 16:50, 21:50.  
Igandea: 16:50, 21:50.

### Pinocho

Ostirala: 16:30, 18:00, 19:20.  
Larunbata: 16:30, 18:00, 19:20.  
Igandea: 16:30, 18:00, 19:20.

#### Rifkin's Festival

Ostirala: 17:10, 19:50, 22:30.  
Larunbata: 17:10, 19:50, 22:30.  
Igandea: 17:10, 19:50, 22:30.

#### La habitación (The Room)

Ostirala: 22:40.  
Larunbata: 22:40.  
Igandea: 22:40.

#### Tenet

Ostirala: 21:10.  
Larunbata: 21:10.  
Igandea: 21:10.

#### Trasto

Ostirala: 16:40.  
Larunbata: 16:40.  
Igandea: 16:40.



LABURPENA

### Bihurri, jaurettxetik kale gorrira

**Zuzendaria:** Kevin Johnson. **Gidoilariak:** Judah Miller, Rob Muir, John Paul Murphy, Harland Williams. **Istoria:** Jordan Katz. **Musika:** Jessica Weiss. **Arte zuzendaria:** Ruben Hickman. **Herr.:** Kanada eta AEB(2019). **Iraupena:** 88 minutu.

## Luxuak utzita, bizitzen ikasten

Haurrentzako zinema sailari hasiera emango dio Kultura sailak, igandean. Etxeko txikiak eta ez hain txikiak animaziozko *Bihurri, jaurettxetik kale gorrira* filmaz gozatu dute.

Kale gorrian geratu den txakur aristokratiko bati eta abeslari eta musikagile izan nahi duen neska gazte bati buruzko istorioa aurkezten du filmak.

Bihurri txakurra da istorioaren protagonista. Bizitza oparo eta luxuz beterikoa bizi du bere jabe maitakorren ondoan. Baina andre aberatsa hil eta gero, kale gorrian jartzen dute herentzia milioidunaren bila doazen jabeen ilobek.

Hiri handiko kaleetan abandonatuta eta bakarrik aurkituko da Bihurri, Zoe neskato gazteak bere etxera eramaten duen arte.

Elkarrekin, lau-hankadun lagun berriak egingo dituzte eta, Zoeren ametsa alde batera geratu gabe, iloba diru-goseen planetatik iheska ibili beharko dira.

Zinema Euskaraz programaren barruko filma da *Bihurri, jaurettxetik kale gorrira*. Ekimenaren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak haur eta gazteentzako pelikula bikoiztea bultzatzen du, eta euskara sustatzen du zinemagintzan.



**Bat-batean iritsi da hotza!**  
**Aukera zabala dugu hotzari aurre egiteko**

**Berogailu tresnetan:**

- Aire termohaizagailuak.
- Aire berogailuak.
- Olio erradiadoreak.
- Konbektore-berogailuak.
- Berogailu bertikala mandoarekin.

**AIRE GARBITZAILEA**  
 Aire kutsatua desifektatzen du

**Eskatu whatsapp bidez!**  
**600 85 75 86**

**Eskuratu gure dendan inoiz egin den zozketarik handienean parte hartzeko kupoiak**

www.electricidadarregui.com  
 tienda.electricidadarregui.com  
 (on-line denda)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

**txintxarri**  
 Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,  
 doan eta euskaraz

**DESKONTU BEREZIAK HERRIKO KOMERTZIO ETA OSTALARIEI**

- PUBLIZITATEA
- PUBLIERREPORTAJEAK
- PUBLIZITATEA INTERNETEN
- GIDA KOMERTZIALA...

**EGOERA ZAIL HONETAN DENOK BATERA AURRERA EGINGO DUGU!**

**ESKATU TARIFAK:** [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) • 646 82 44 66

**Ttakun Kultur Elkartea** **Zozketa!** **SUNSETBASTIAN**

**Ttakun Kultur Elkarteke bazkideen artean!**  
**SunsetBastian-en eskutik ILUNABARRAZ PIKNIK saski eder batekin gozatzeko txartel bikoitza zozketatuko dugu!**

**SASKIAN SARTZEN DA:**

- Ogi biribila
- Patata tortilla
- Gazta zatia
- Bi ur botila
- Lau garagardo botila
- Piknik manta 2 pertsonentzat eta edariak hotz mantentzeko motxila. (garraioa ez dago barne)

**Parte hartu nahi baduzu, eman izena URRIAREN 18a baino lehen: [harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) helbidean, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646.82 44 66 (whatsapp)**

[@ttakunKE](https://www.facebook.com/ttakunKE) [f](https://www.instagram.com/ttakunKE) [t](https://www.twitter.com/ttakunKE) [y](https://www.youtube.com/ttakunKE) [in](https://www.linkedin.com/ttakunKE) [v](https://www.youtube.com/ttakunKE) [e](https://www.youtube.com/ttakunKE)

Bazkietza informazioa



**2<sup>mó</sup> graduatu**  
 erreflexuen aurkako lenteekin

**99€**

2020/12/31ra arte baliagarria. Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15  
 Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**

[www.multioplicas.com](http://www.multioplicas.com) [f](https://www.facebook.com/multioplicas) [i](https://www.instagram.com/multioplicas) [y](https://www.youtube.com/multioplicas) [in](https://www.linkedin.com/multioplicas) [v](https://www.youtube.com/multioplicas) [e](https://www.youtube.com/multioplicas)